

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure enpresaren aktibo nagusi edo propietateak oso garrantzitsuak izango dira BotaDiken funtzionamendu egokirako. Errentan hartutakoak edo erositakoak izan daitezke, baita utzitakoak ere. Bezeroengana iristea ahalbidetuko digu funtsezko baliabideen konbinaketa on batek, baita horiekin harreman ona izatea eta balio proposamenean oinarri sendoa izatea ere. Baliabide horiek fisikoak, intelektualak, giza baliabideak eta finantza-baliabideak dira.

Baliabide fisikoei dagokienez, botoiak bildu eta giltzatako bihurtzeko prozesua egingo duen eraikina/pabelloia beharko dugu, eta bertan kokatuko dira gure bulegoak. Eraikin hori ez da salmenta puntu bat izango (internet bidez edo liburudendak bezalako dendetan salduko dugu produktua). Ibilgailuak (hasiera batean bizikletak, baina beste enprekin bileretara joateko garraio publikoa erabili genezake), sistema informatikoak (web orrialdea online saltzeko eta aplikazioa botoiarekin lotzeko), salmentarako puntuak (Errenkoalderekin hitzartutako dendak) eta banaketa sarea (hau enpresa hedatzeko aukera ikusten badugu, banaketa enpresa bat kontratatuz) ere izango dira gure baliabide fisikoak.

Bestetik, baliabide intelektualen inguruan hau aipatu beharra dago: Marka (BotaDik, BD laburdura), patentea (giltzatakoaren asunto hau berria da), egile eskubideak, elkarteak (esan dugu Errenkoalderen dendetan banatuko dela gure produktua gure salmenta propioaz gain) eta datu basea. Botoia aplikazioarekin lotuta egongo da, eta aplikazioak bezeroen datu asko edukiko ditu. Horrela funtzionatuko dugu.

Giza baliabideei dagokienez, atal honetan bakoitzaren indarguneak eta ahulguneak aipatzen dira, hau da, bakoitzak zertan lan egin dezakeen. Gure enpresan (BD) enpresa ideiarenean aztertu genituen laburturik gure indarguneak, eta funtsezko sozietateetan organigrama nahiko argi utzi genuen. Labur-labur, Markel kontu ekonomikoetaz arduratuko da, Eneko marketing eta komunikazioaz, Ibon mantenimenduaz eta kontu ekonomiko batzuetaz, eta Haritz produktua sortzeko prozesuan zentratuko da, eta baita beharko ditugun langileen plantila kudeatzeaz ere (botoia giltzatako bihurtzeko eta aplikazioarkein konektatzeko langileak beharko ditugu). Gainera, informatika esparrua kudeatuko duen nagusi berri bat ere beharko dugu.

Finantza-baliabideak aztertuz, bezeroek emango diguten dirua eta diru laguntzak sartzen dira barruan. Nola finantzatu benetan garrantzitsua da: erosleen dirua diru-sarrera azpimarragarria izango zaigu, baita diru-laguntzak ere. Horiek, bere garaian grafikoetan azaldu genituen.

Halere, gure enpresa proiektua zerotik hasi beharko dugunez, hasieran mailegu bat eskatu beharko genuke banku batean, 100.000€ ingurukoa (pabiloiaren alokairua, lehenengo botoien erosketa, langileen soldatak, aplikazioaren sorrera...).

Baliabideak horiek izanik, garatzeko modu hauek aurreikusten dira edozein enpresatan, eta guk denak baliatuko ditugu funtsezko baliabideak bermatzeko. Hasteko, externalizazioa funtsezko baliabideetako bat da. Beste enpresa batek egiten du, ekoizpen-kostuak, eta orokorrean kostuak murrizteko. Gure kasuan giltzatakoan egongo den botoia beste enpresa batek fabrikatuko du.

Bestetik, kostuak murriztea beste tresna bat da, hau da, beste hitz batzuetan esanda, baliabideek enpresa baten kostuetan duten eragina minimizatzea. Batzuetan, merkatua hobeto segmentatzeak edo gure baliabideak hobeto kudeatzeak kostuak murrizteko aukera ematen digute. Horregatik, hasieran gu arduratuko gara giltzatakoen banaketaz eta merkatu eremua gure ingurunera mugatuko dugu, gero oinarri sendo horren gainean hazten joateko.

Hobetzeko aukerari dagokionez, enpresa batek duen perfektionatzeko aukera beti desberdina da: batzuetan, baliabideen hobekuntzarik ez zaie interesatzen. Noski, guk hobetu nahiko dugu, hasieran planteatu genuen arazoari (indarkeria eta lapurreta kopurua jeistea) irtenbide hobeak bilatuz. Gainera, baliabide fisikoak ere hobetuko ditugu gure enpresa hedatzen bada, eta intelektualak ere pilatuko ditugu, esperientziarekin ikasi eta ikasi egingo baitugu.

Iraunkortasuna da gure helburuetako bat; eta beraz gure jarduerari eutsi nahi badiogu, funtsezko baliabideak behin eta berriz hobetu, aldatu, ordeztu, trukatu, txandakatu, berritu,

handitu edo hedatu beharko ditugu. Funts baliabideak ordezteko bidea, ordea, itxi egin behar dugu. Baliabideak hobetzeak ez du esan nahiko ordeztu edo aldatuko ditugunik. Garrantzitsuena ordezkagarriak izatea da, eta ordezkatzea merkatuaren muturreko aldaketetan soilik gertatuko litzateke, bestela funtsak benetakoak ez direla esan nahiko luke. Hala ere merkatu nitxoa handituz gero, baliabide kopurua ere handitu beharko genuke, noski. Hau da, ordezkagarritasuna erlatiboa da, baita horren eragin positibo edo negatiboa ere.